

**2009KO MARTXOAREN 5EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bosta

HILABETEA: Martxoa

URTEA: Bi mila eta bederatzi.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko urtarrilaren 29an egindako ohiko batzaraldiko akta onartzeko proposamena.

2009ko urtarrilaren 29an egindako ohiko batzaraldiko aktaren berri eman ondoren, Julio Herreros jaunak ez du akta onartu bertan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu zuelako. Beste guztiek, proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 20 Areako Arau Subsidiarioen aldatetari buruzko behin-behineko onespena.

Alkateak hitza emanda, Aitor Aldasoro jaunak hirigintza batzordeko lehendakariak, proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2008ko abenduaren 18an Udalbatza Osoak erabaki zuen 20 Areako Arau Subsidiarioen aldateta puntualari hasierako onespena ematea. Espedientea jendaurrean jarri zen, Berria, Diario Vasco eta GAOean 2008ko abenduaren 19an eta 20an, nahi 2009ko urtarrilaren 8an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz. Alegazioak aurkezteko legeak adierazten duen epen ez da inolakorik aurkeztu.

2.- Aldi berean Uraren Agentziari txostena eskatu zitzaion, baina oraindano ez du txosten hori eman. Dena dela, ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikulua arabera, txostena aldekoa dela kontsideratu daiteke, bi hilabeteko epean ez bada eman eta jakinarazten.

3.- 105/2008 Dekretoaren Laugarren Xedapen Gehigarriak ondorengo betebeharra azaltzen du: behin-behineko erabakiarekin batera Udal Plangintzako Aholku Batzordearen derrigorrezko txostena igortzeaz gain, Batzordeak egindako iradokizunen edo gomendioen inguruan Udalak emandako iritzia edo erantzuna.

4.- Horretarako Planeamenduko Aholku Batzordea osatu zen eta GAOean 2009ko martxoaren 2an behin betiko onespenea argitaratu da eta 2009ko otsailaren 26 eta martxoaren 3an Alkateak emandako Ebazpenean kideek izendatu zituen.

5.- 2009ko martxoaren 3an, Aholku Batzordeak egindako bileran ondorengo txostena eman du:

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioak aintzakotzat hartzea.

Bigarren. 20. Areari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Hirugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

3.- HAZTAPEN KOEFIZIENTEAK. Aurkeztutako errekursoak ebaztea.

Alkateak hitza emanda, Aitor Aldasoro jaunak hirigintza batzordeko lehendakariak, proposamenaren berri eman du:

“Gaia : haztapen koefizienteak

AURREKARIAK

1.- 2008ko azaroaren 27an Udalbatza Osoak erabaki zuen, haztapen koefizienteak aldatzeari buruzko 2008ko irailaren 30eko hasierako onespenera aurkeztutako alegazioak ebaztea eta behin betiko ondorengo koefizienteak onartzea :

Babes ofizialeko etxebizitza / VPO: 1
Etxebizitza tasatua / vivienda tasada: 1,9
Babes ofizialeko eranskina / Anejo VPO: 0,5
Etxebizitza tasatuaren eranskina / Anejo VPT: 0,5
Etxebizitza libre / Vivienda libre: 6,2
Etxebizitza librearen eranskina / Anejo libre: 0,7
Merkatal lokala / Local comercial: 3,3

Erabakia GAOean argitaratu zen eta prozeduran interesatuta banakako jakinarazpena egin zitzaion.

Behin betiko erabakiaren aurka ondorengoek birjarpen helegitea aurkeztu zuten:

- URBIALDE IRU, S.L.
- KUTXA
- IÑIGO DE ARTEAGA Y MARTIN
- BEZALDE, S.L.
- GAZTAÑAGA Y TELLERIA, S.L.

2009ko otsailaren 5eko datarekin, udal arkitektoak ondorengo txosten teknikoa eman du, aurkeztutako errekursoei buruz eta proposatu du deuseztatzea, etxebizitza libreari dagokion indizea izan ezik.

TXOSTENA

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako birjarpen helegiteak ebaztea, txosten teknikoaren arabera eta horren ondorioz, deuseztatzea etxebizitza libreari dagokion indizea izan ezik.

Bigarren. Etxebizitza librearen haztapen ponderazioa, 5,2an finkatzea. Beste koefizienteak, 2008ko azaroaren 27ko Udalbatza Osoan eta 2008ko abenduaren 26an GAOean argitaratutakoak dira.

Hirugarren. Erabaki honen berri errekurtsioak aurkeztu dituztenei ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

4.- HITZARMENA. BIZIGUNE programari buruz Eusko Jaurlaritzarekin elkarlan-hitzarmena.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

“GAIA: BIZIGUNE PROGRAMARI BURUZKO HITZARMENA.

Bizigune programari buruz Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia aztertu ondoren, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Bizigune programari buruz Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuarekin sinatzea proposatzen den hitzarmenari onespena ematea.

Bigarren. Alkate jaunari aipatutako dokumentua sinatzeko baimena ematea.

Hirugarren. Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuari ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak proposamenaren aldeko adostasuna azaldu du.

EBko ordezkariak ere proposamenaren alde adostasuna azaldu dute.

Josi Insausti (EA): “Gu ados gaude hemen azaltzen den hitzarmenaren helburuarekin, baina ondorengo kezka daukagu: momentu honetan funtzioetan dagoen kontseilariak ea hitzarmen hau sinatzerik duen ala ez. Si no pudiera ser pediríamos que desde el Ayuntamiento de Beasain, se solicitara al nuevo Gobierno Vasco que continuara en la promoción de la vivienda, bien sea con este programa u otro. Dadas las condiciones de inaccesibilidad que hay en este momento y la necesidad de muchas personas de una vivienda digna pensamos que se debe de continuar con este programa o con otro con la misma finalidad.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no vamos a apoyar el convenio. La mayoría de los partidos cuando nos presentamos a las elecciones proponíamos potenciar el tema de la vivienda en alquiler, pero ni consideramos que el procedimiento que se nos presenta ni el momento es el adecuado. En cuanto al tema del procedimiento queremos destacar que así como en otros servicios que el Ayuntamiento presta a otras instituciones, recibe una compensación económica por hacer de intermediarios, pero en este caso el servicio a prestar por un programa del Gobierno Vasco, lo es a cuenta del Ayuntamiento, sin ninguna contraprestación económica a cambio y no sólo eso, sino que para dar ese servicio nos vamos a valer de una sociedad con la que tenemos contratada una prestación de servicios para gestionar lo concerniente a la rehabilitación de la calle Arana por un periodo de dos años ampliable a cuatro, en el cual el primer año tendría una revisión para ver si los objetivos que planteábamos se estaban cumpliendo, y si había un interés real de llevar adelante el tema. Al fin y al cabo son 56.000 € lo que nos cuesta este programa y si no hay un interés por parte de los vecinos, no tendría mucho sentido seguir gastando. Con el planteamiento que hoy se nos hace, damos pié a que este servicio se pueda mantener sine die, pues hemos creado otra obligación que hace que no tengamos que revisar dicho contrato. El Ayuntamiento de Beasain consideró que no podía desde sus propias oficinas llevar adelante el tema de la vivienda pública, y por eso se creó la sociedad anónima Beasain Lantzen. En otros municipios este tipo de sociedades están llevando el tema del alquiler de viviendas, y en Beasain también podía ser así con coste cero, dado que Beasain Lantzen tiene unos ingresos, en función del 6% de la obras que se hacen en este municipio por parte de esta Sociedad. En este momento rondará el millón de euros lo facturado por las obras del polideportivo. Pensamos que con esas cantidades se podía haber planteado que fuera Beasain Lantzen quien lo llevara y que fuera a coste cero, y que en todo caso, se podía haber negociado con el Gobierno Vasco, pero que tampoco es el momento, dada la coyuntura actual, para que hubiéramos hecho de intermediarios a cambio de una compensación económica. Por todo ello vamos a votar en contra.”

Alkate jaunak (EAJ): “Josi Insausti erantzunez esan, guk Eusko Jaurlaritzarekin egingo dugula hitzarmena eta beraiek ikusiko dute nork sinatzen duen.

A Fernando Boada decirle que es interés de este Ayuntamiento el fomentar el alquiler de la vivienda y que este programa hay que impulsarlo. Es un programa que está en vigor y que en Beasain ya existe. En Beasain hay entre 20 y 26 viviendas que están acogidas a este programa. Nosotros desde el Ayuntamiento queremos impulsarlo informando y acercándonos a la ciudadanía. Respecto al tema de los costos, decir que hemos contratado con esa empresa por un año, y por cada contrato de alquiler en Beasain, va a percibir la cantidad de 600 €. No creemos que esa cantidad es exagerada. Si consiguiéramos 30 más sería un gran éxito. Esa empresa lo que hace es captar personas dispuestas a alquilar. Esto es para un año, de manera que si el año que viene no nos interesa este programa, no renovamos el contrato.”

Josi Insausti jaunak (EA): “Sailburuak sinatzerik ez badu, eskatzen duguna da Udalak azaltzea programa honekin jarraitzeko nahia.”

Alkate jaunak (EAJ): “Nosotros haremos lo posible para sacar adelante este programa.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ, EA, EB, PP)
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin erabaki da ondorengo hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin sinatzea:

“BILDUTA

ALDE BATETIK, Francisco Javier MADRAZO LAVIN jauna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburua eta VISESAko presidentea

ETA BESTETIK, Patxi Plazaola Muguruza jauna, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria

AGERTU DIRA

Lehenengoa, dela Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu gisa, dela “Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.” (VISESA) sozietatearen izenean eta ordezkari gisa; sozietate hori izaera mugagabearekin eratu zen Alfredo Pérez Avila notarioaren aurrean, 1990ko otsailaren 12an, aipatu urteko protokoloaren 331. zenbakian, eta, sozietatearen egoitza Gasteizen kokatzen da, hain zuzen ere, Orio kalean, 1-3 behe-solairuan, IFK A-20306775 zenbakiarekin. Bestalde, Gipuzkoako Merkataritzako Erregistroan dago inskribatuta, 971. liburukiaren 21. folioan, SS-64. zenbakidun orrian eta 1. inskripzioa eginda.

Bigarrena, Beasaingo udalaren izenean eta ordezkari gisa, (2009ko martxoaren 5eko osoko bilkura),

Agertutako alderdiek Lankidetza-Hitzarmena egilesteko behar bestekoa eta beharrezkoa den lege-gaitasuna dutela aitortu dute, eta, ondore horretarako,

AZALDU DUTENEZ

LEHENENGOA.- Euskal Autonomia Erkidegoan jenderik gabeko etxebizitza edo etxebizitza huts ugari daude (etxebizitza-parke guztiaren %10,4, azken biurteko inkestaren arabera); izan ere, gure gizarteko gizarte-sektore garrantzitsuek etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea erabili ezin dutenez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak esku-hartze publiko bati ekitea erabaki du, bereziki, etxebizitzok merkatuan bizikidetza-unitateentzat eskuragarri izan daitezen.

BIGARRENA.- Esku-hartze horren barnean azpimarratzekoa da BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa”. Kasu horretan, VISESA sozietate publikoak kudeatzen du, eta, horren xedea etxebizitza hutsa mugiaraztea da, batez ere, horren beharra duen gizartearen onurarako; horretarako, segurtasun juridikoaren eta ekonomikoaren araubide publiko bat eskainiko da eratu beharreko lagapen-harremanei begira.

HIRUGARRENA.- BEASAINgo udalaren ustez, nahitaezkoa da aipatu Bizigune Programa mugiaraztea. Helburu hori eskuratzeko, lagungarriak izan daitezkeen baliabide ekonomiko eta pertsonalak eskainiko dira, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak jadanik VISESA sozietate publikoaren bidez ezarritakoekin batera. Helburua ahalik eta etxebizitza huts gehien horien beharra dutenen eskura jartzekoa da, betiere aipatu “Etxebizitza Hutsaren Programa”ren esparruan.

LAUGARRENA.- Azaldutako helburuak behar bezala garatu daitezen alderdiek Lankidetza-Hitzarmen hau formalizatu dute, jarraian datozen klausulak aintzat hartuta:

KLAUSULAK

-I-

Lankidetza-protokolo honen xedea BEASAINgo udalerrian “Etxebizitza Hutsaren Programa” bultzatu eta hobetzea da, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren edo horren ordezkotako arauketaren bidez araututa. Helburu horretarako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak, betiere VISESAren bitartez, eta BEASAINgo udalak elkarrekin hartutako konpromisoak bereganatu dituzte.

-II-

Aurreko klausularen ondoreetarako, VISESA sozietateak honako puntu hauek betetzeko konpromisoa hartu du:

- a) BEASAINgo udalerrian neurri ekonomiko guztiei eta beste edozein motatako eustea eta horiek bere gain hartzea, betiere Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan edo horren ordezkotako arauketan aurreikusita.

Ondore horietarako, konpromiso horren arabera, BIZIGUNE-BEASAIN programa finantzatu beharko da. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak etxebizitzak “Etxebizitza Hutsaren programa”ren esku uzten duten jabeek ordaindu beharreko zenbatekoen ondorioz sortutako defizita bere gain hartu beharko du, bai eta horrek jasoko duen gizarte-alokairuaren ondoriozkoa ere, batez

ere, etxebizitza errentan hartu dutenena, bederen, IV. klausulan ezarritako irizpideak kontuan izanda.

- b) BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa” kudeatzeko zerbitzuak une oro koordinatzea, baldin eta horiek BEASAINGO udalak ezarri baditu, eta hiritarrei arreta egokia ematea, ahalik eta etxebizitza huts gehien lagatzeko. Koordinazio horrek barnean hauxe hartuko du:

C1.- Jendearentzako informazio telefono bakarrari eutsiko zaio (900 linea-zenbakia) Bizigune Programari dagokionez.

C2.- VISESAk eskubidea izango du Euskadi osoko udalerri guztientzako kudeaketa-esparru orokorra ezartzeko, kasu horretan ere, BEASAINGO udalak bete beharko duena. Aipatu eremu orokor horretan, prozedura homogeneoa ezarriko da, formulario orokorrak, etxebizitzaren jabeak jaso behar eta errentariak epe berdinetan ordaindu beharreko errenta zehazteko tasazioa egingo da, eta, espedienteen kudeaketa koherentea gauzatuko da; horrela, VISESAk Euskal Autonomia Erkidego guztian modu berean jardun ahal izango du. Esparru horretatik kanpo, BEASAINGO udalak, eta, bereziki, Bizigune Programan parte hartu nahi duten etxebizitza hutsen titularrak eta jabeak erakartzeko zerbitzua bultzatzeko antolamenduari dagokionez, erabateko autonomia du.

C3.- VISESAk eskubidea izango du BEASAINGO udalak hitzarmen horren barruan ezarritako zerbitzuen bidez erakarri dituen etxebizitzaren artean Bizigune Programan zein etxebizitzak parte har dezakeen erabakitzeke, betiere programan aplikatu beharreko arauketan zehaztutako betekizunak, irizpen teknikoak, demandaren ezaugarriak, uko egiteko, arrazoen aurretiazko azterketak etab. aintzat hartuta.

C4.- VISESAk eskubidea izango du eraldaketak egiteko beharrezko baloratzeko eta, behin hori erabakita, eraldaketak egiteko, hori guztia, BEASAINGO udalak hitzarmen honen barruan ezarritako zerbitzuen bidez erakarri dituen etxebizitzekin lotuta.

C5.- VISESA sozietateak erantzukizuna izango du, ahalordea duen pertsonaren bidez, etxebizitzak B programan sartzeko izenpea jartzeko.

Bizigunek, bere aldetik, helburu horretarako beharrezkoak diren kontratuak izenpetuko ditu.

C6.- VISESAk erantzukizuna izango du Bizigune Programan parte hartzen duten etxebizitzekin zerikusia duten kontratuen kudeaketaren inguruan, ordainketak, kobrantzak, kanporatzeko prozedura judizialak edo bestelakoak, erreklamazioak, jabetza horizontala, etab. barne izanik.

-III-

BEASAINGO udalaren protokolo honetan jasotako I. Klausularen ondoretarako, Urbanizazioa Birgaitzeari buruzko Sozietatea “VISESAk” zenbait konpromiso hartuko ditu:

- a) BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa” kudeatzeko udal-tresna sortu eta finantzatu du. Hori dela bide, BEASAINGO udalerrian kokatutako etxebizitza hutsen lagapenaren kudeaketarako eta formalizatzeko lankidetzan jardungo du, VISESAk jadanik aurreko klausulan modu koordinatuan ezarritakoarekin eta horren ondorioz eskuratutako datuekin batera, edo, BEASAINGO udalak berez dituen datuekin batera, betiere Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren mesedetan, aipatu BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa”n parte hartu eta osteko esleipena egin ahal izateko.

Bizigune “Etxebizitza Hutsaren Programa” kudeatzeko udal-tresna horren eginkizunak hauek izango dira:

- a. Programari buruz informazioa eskatzen duten pertsonen informatzea
 - b. BEASAINGO udalerrian kokatutako etxebizitza hutsen onarpen-prozedurak jabeekin egindako elkarriketa batekin hastea.
 - c. Etxebizitzak esleipendunei behin-behineko esleipen-fasean erakustea.
 - d. Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoen Lurralde Arduradunarekin etengabeko koordinazioari eustea, jadanik hasita dauden onarpen-prozesuen datu guztiak, ukapenak eta esleipenak horri igorrita.
- b) Aurreko paragrafoan azaldutako helburuak eskuratzeko, eta aipatu programa sustatu eta etxebizitza hutsak erakartzeko helburuarekin, BEASAINGO udalak 2009ko otsailaren 12ko datarekin, AYTASArekin zerbitzu horiek emateko kontratua sinatu du. Zerbitzu horiek, Arana kaleari buruzko Zaharberritzeko Egitasmo Berezia kudeatzeko Udalak, J. M. Iturriotz kalean publikoari irekita dagoen bulegoan, emango ditu.

Kontratu horren KOSTU GUZTIA eta lokala mantentzearena BEASAINgo UDALAREN KONTURA BAKAR-BAKARRIK izango da, aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondoretarako. Horrenbestez, VISESA SOZIJETATEA HORRI BEGIRA SOR DAITEKEEN ERANTZUNKIZUNETIK SALBUETSITA GERATU DA.

- c) Urtero-urtero, gutxienez, publizitate-kanpaina bat antolatu beharko du, hiritarrei BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa”ri buruz informazio egokia jasotzen dutela bermatuz. Kanpainaren diseinua eta horren programazioa VISESArekin bat eginda burutuko dira.
- d) BIZIGUNE “Etxebizitza Hutsaren Programa”ren kudeaketarako udal-zerbitzuak ezarritako dituen zerbitzuen eta VISESAk ezarritako dituen arteko koordinazioa sustatu eta erraztu behar du, aurreko klausulan ezarritakoarekin bat etorriz, hiritarrei arreta egokia eman eta ahalik eta etxebizitza huts gehien lagatzeko.
- e) VISESAri eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailari etxebizitza hutsen eta BEASAINGO udalerrian dauden horien gaineko pertsona titularrei buruzko datu guztiak emango dizkiote, betiere indarreko arauketarekin bat etorriz, batez ere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arauketarekin (abenduaren 13ko 15/1.999 Lege Organikoa eta legeria osagarria). Helburua etxebizitzok programaren esku uzteko bultzatzean datza.

-IV-

Bizigune Programaren barnean dauden etxebizitzaren esleipen-sistema eta irizpideak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ezarritako ditu, Etxebizitza Hutsaren Lagapen baldintzak eta Esleipen-prozedurari buruzko 2003ko apirilaren 22ko Aginduan ezarri irizpideak eta programa arautzen duen gainerako arauketa aplikatuta.

- V -

Alderdi bietan, etxebizitza hutsa mugiarazteko baliagarriak diren beste zerga-neurrien edo beste edozein motatakoen bideragarritasuna aztertuko da, esaterako,

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak programaren esku utzi duten etxebizitzaren jabeen emandako hobaria, etxebizitza gaitzeko egin behar diren obren lizentzia-tasaren bidez horiei emandako hobaria, etab.

-VI-

Protokolo honetan aurreikusi ez den gainerako guztian Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua edo horren ordez jarri edo berori garatzen duen arauketa aplikatuko da.

-VII-

Protokolo honek ondoreak izango ditu Eusko Jaurlaritzak BIZIGUNE "Etxebizitza Hutsaren Programari eusten dion bitartean, edo, alderdietatik edozeinek hori salatzen ez badu, horren ez-betetzea barne. Hori egin nahi izanez gero, aurretiazko abisu sinetsgarria eman beharko da, hain zuzen ere, hiru hile lehenago.

-VIII-

VISESaren eta BEASAINGO udalaren ustez, protokolo honen Segimendurako Batzorde bat eratu behar da. Batzorde horretan, alderdi bietako ordezkari batek parte hartu beharko du, eta, horien eginkizunen artean garrantzitsuenak, ezarri diren aginduak eta konpromisoak bete direla ikustean eta, orokorrean, etorkizunean gerta daitezkeen intzidente-arazo guztiei arreta jartzean datza.

Adostasunaren eta onestearen frogak gisa, agiri honen lau aleak sinatu dituzte, goiburuan ezarri tokian eta datan."

5.- MUGARRIAK. Beasain eta Lazkaon artean mugarrak errekonozitzea eta horretarako batzordea eratzea.

Alkateak proposamenaren berri eman du:

"AURREKARIAK

1942. urtean, Beasaingo eta Lazkaoko udalerrien artean, mugaketa egin zen eta zegokion akta jaso zen.

Gaur egun, ordea, desadostasun txiki batzuk sortu dira mugaketa egin ondoren bere garaian jarritako mugarriekin eta gainera mugarri batzuk desagertu egin dira.

Horren ondorioz, Gipuzkoako Udal Mugapeak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 17tik 23ra barne artikuluen arabera, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasain eta Lazkaoko udalerrien arteko mugan, mugarrak errekonozitzeko espedienteari hasiera ematea, falta direnak jarritz. Hori guztia, 1942an egindako mugaketaren arabera.

Bigarren. Horretarako ondorengo batzordea eratzea:

- Alkatea: Patxi Plazaola Muguruza

- Bi zinegotzi: Aitor Aldasoro Iturbe
Fernando Boada González

- Udalaren Idazkaria: Itziar Arostegi Apaolaza
- Teknikoa: Nikolas Barandiaran Contreras (arkitektoa)

Hirugarren. Erabaki hau Lazkaoko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, nahiz afektatutako lursailen jabeei jakinaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- ERAKUNDE-ADIERAZPENA. Nazioarteko emakumearen egunari buruzko erakunde-adierazpena.

Alkateak, EBko ordezkariari hitza eman eta hauek adierazpen honen berri eman dute:

“BEASAINGO UDALAREN 2009KO MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTUTIZIONALA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Krisi ekonomikoa nagusi den egunotan, lana da euskal herritarren arduraren handienetako bat. Egoera horri aurre egiteko, euskal instituzioek, euren artean udalek, hainbat neurri abiarazi dituzte.

Testuinguru horren barruan, industria eta zerbitzu sektoreek jasan dituzte lañaren galerarik handienak. Ondorioz, lanaren beherakadak eragin handiagoa izan du gizonengan, emakumeengan baino. Hala ere, azpimarratu gura dugu nola, oraindik ere, emakumeen okupazio tasa gizonena baino txikiagoa den (%59,1 eta %74,8, hurrenez hurren).

Krisiaren aurrean ekimen berriak abiarazi asmoz, lana sortzera bideratutako neurri guztiak positibotzat hartzen dira, zalantzarik gabe; baina, era berean, uste dugu, beharrezkoa dela emakumeak baztertu ditzakeen genero norabideak aurreikustea eta sahiestea plan horietan.

Era berean, jakinarazi nahi dugu egoera honen ondorioz, gizarte eredu patriarkal eta sexista berpizteko arriskua dagoela (gizon hornitzailea/emakume zaintzailea), orain arte landu dugun erreferente berdintzailearen ordeztu; hau da, emakumezko zein gizonezko hornitzaileak eta zaintzaileak berdintasunean.

JAKITUN gara, beraz, egungo krisi egoeraren barruan hainbat agente sozialek abiaraziko dituzten neurriek eragin ezberdina izango dutela emakumeengan edo gizonengan.

ADIERAZTEN DUGU beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen eskubide guztiak osotasunean egikaritzea bermatzea, eta honezkero gure artean dagoen desberdintasunezko arrakala gehiago ez zabaltzea.

Horretarako, orain inoiz baino gehiago, KONPROMISOA HARTZEN DUGU berdintasunaren aldeko tokiko politikak indartzeko. Geure gain hartzen dugu krisiak botatako erronka, ulertzen dugulako udal eredu berdinagoetarako bidea egiteko aukera dela.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da nazioarteko emakumearen egunari buruzko erakunde-adierazpena.

7.- MOZIOA. Abiadura handiko trenari buruzko EAEren mozioa Alkateak aurkezten duena.

Alkateak EAEko ordezkariari hitza eman eta honek mozio hau irakurri du:

“Gaur egungo mundu desitxuratu honek hainbat gatazka erakusten dizkigu egunerokotasunean. Aspaldi honetan baina, gai jakin bat garrantzia hartzen ari da egunetik egunera: Abiadura Handiko Trena. Izan ere, proiektuaren sustatzaile nahiz oposizioak gero eta indar handiagoz eta ozenago aldarrikatzen baitituzte beren arrazoiak.

Honen ispilu da baita ere, gizartearen zati handi bat bide ezberdinak erabiliz proiektu honen kontra agertu dela, bai manifestazio jendetsuetan parte hartuz eta aldarrikapen ekintza ezberdinak burutuz, zein herrian herriko Herri Galdeketetan bere oposizioa agertuz. Iada Urbina, Gasteizko Kontsejuak, Itsasondo, Atxondo, Alegia, Angiozar, Aramaio, Elorrio, Mugerre, Uztaritze eta Legorreta herriak AHTren aurka agertu dira; hau da, erabakitze aukera eman zaien herritar guztiek, AHTari ezetz esatea erabaki dute.

Guzti honegatik, demokrazia partehartzailea bultzatu eta herriari hitza eman beharrean gaudela uste dugu; gizartea ongi informatu, eztabaida zabaldu eta erabakitze eskubidea gauzatu behar da.

Illo honetatik, udal honek ezin dezake ulertu, instituzio ezberdinek osatzen dugun Eudel bezalako erakunde batek, herri ezberdinen iritzia kontuan ez hartu izana. Eudelek herri ezberdinen ordezkari den heinean udal horien hitza errespetatu eta bete beharko luke.

2008ko abenduaren 28an Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak eta Eudel-ek sinatutako lankidetza hitzarmeneko 2. klausulan argi azaltzen denez gaur egun, iada azpiegitura eraikitzen ari den une honetan, oraindik ere informazioa banatzea beharrezkoa da. Baina zein informazio? Ingurumenaren babesarekin bateragarria den azpiegitura bat dela dioten informazio faltsua? Garraio publiko ingurumen naturala errespetatzen duen garraio publiko ekologikoa dela, eta gizartearen gehiengoaren babesa duen proiektu bat dela dioten informazioa?

Eudelen kide garen udal askok ez ditugu hitzarmen horretako zenbait baieztapen onartzen. Are gehiago, proiektu hau herriak onartzen ez duen azpiegitura bat dela

diogu, gizartearen ongizatearen kontrako azpiegitura izugarri bat zehazki, Euskal Herriko ingurumena inondik inora errespetatzen ez duen proiektu elitista bat.

Zentzu honetan, interesgarria litzateke ere, Europar Batasuneko eta Europako Kontseiluko erakundeak herritarren oposizioaz eta herri galdeketez ere informatu ditzala.

Bestetik, hitzarmen horren arabera eskaintzen diren zerbitzuen kostuaren jatorria iluna dela iruditzen zaigu. Batetik, argi gelditzen da udalek eskatzen dituzten informeak Eusko Jaurlaritzak ordainduko dituela, baina zein jatorri du diru kopuru horrek? Eta zein jatorri du informazio kanpainak zein izapide prozesalak arintzeko zerbitzuak ordaintzeko diruak?

Hitzarmenaren hainbat ataletan proiektuaren izapideak arintzeko zerbitzuen eskaintza egiten da. Honek zalantza ugari sortzen dizkigu, izan ere, ez dugu izapideak arintzeko beharrianik ikusten, hau da, legezko izapideak ez jarraitzeko beharrianik ikusten.

Proiektua eraikitzeko legezko izapideak jarraitu beharko dituzte bai Eusko Jaurlaritzak, zein Espainiako eta Frantziako Gobernuak, lurak desjabetzeko udalen eta Eudelen laguntzaren beharrik gabe. Herritarrak dira, ordea, proiektu honen aurrean babesa behar dutenak.

Azaldutakoagatik, Beasaingo Udalak, Eudeleko kide garen heinean, zera eskatzen diogu erakunde honi:

- 1. Gizarteak onartzen ez duen obra hau berehala gelditzea eskatu dezala.**
- 2. Herritarrei egiazko informazioa zabaldu diezaiela.**
- 3. AHTaren inguruko eztabaida publikoa zabaldu dezala.**
- 4. Defenda dezala, bai Eusko Jaurlaritzaren, Espainiako Sustapen Ministerioaren zein Frantsez Gobernuaren aurrean, AHTak eragindako herriek duten erabakitze eskubidea.**
- 5. Informatu ditzala Europar Batasuneko eta Europako Kontseiluko erakundeak herritarren oposizioaz eta egindako herri galdeketez.”**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Alkate jaunak (EAJ): “Me hago responsable. Respecto de la moción decir que en el último pleno ya ratificamos un acuerdo de Eudel y por lo tanto yo propongo se mantenga ese acuerdo y votar en contra de esta moción, a menos que alguien tenga algo que decir.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “El partido socialista ha decidido que ni siquiera va a entrar en la votación de esta moción por dos motivos: primero porque es un tema ya tratado y segundo porque no entiende cómo el Alcalde una y otra vez presenta mociones en nombre de una plataforma ilegalizada sabiendo que no es legal lo que está haciendo. Este Ayuntamiento se ve obligado a debatir unas mociones que no tendrían que haber llegado. Por ello el partido socialista ha decidido que ni siquiera va a participar en la votación.”

Alkate jaunak (EAJ): “Este alcalde se comprometió y se compromete a presentar mociones de los ciudadanos en concreto de ANV. Esto lo hablamos con ellos y lo defendemos, porque por circunstancias extrañas no pueden estar aquí. Lo que me extraña es que hasta ahora nada ha dicho el partido socialista y no sé por qué ahora se le ha abierto la espita, que antes monopolizaba Julio. En cualquier caso agradezco vuestra colaboración.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 0

Aurkako botoak: 12 (EAJ, EA, EB, PP)

Abstentzioak: 0

PSE-EE/PSOE taldeko zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

Horren ondorioz, ez da onartu EAEren mozioa.

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2009ko urtarrilaren 27tik 2009ko martxoaren 2rarte Alkateak emandako ebazpenak.

2009ko urtarrilaren 27tik 2009ko martxoaren 2rarte Alkateak emandako ebazpenen berri eman dira.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

MODIFICACIÓN DE LA FECHA DE CELEBRACIÓN DEL PLENO

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “El grupo socialista agradece al Alcalde y al resto de los grupos políticos el haber aceptado nuestra petición de cambiar de fecha el Pleno porque coincidía en plena campaña electoral y no podíamos asistir.

APERTURA POLIDEPORTIVO

El 12 de febrero recibimos un mensaje diciendo que el día 13 viernes que comienza la campaña se abre el polideportivo, pero el día 12 hay una rueda de prensa donde se visitan todas las zonas que se pueden visitar del polideportivo, ya que esto va por fascículos. No se hace una inauguración porque no está permitido por Ley, con lo cual se disfraza de apertura. Nos encontramos con una situación un poco anacrónica y atípica porque siendo un edificio público, se abre al uso de los ciudadanos cuando está totalmente inconcluso. Además, no se hace un seguimiento correcto de las obras, quizás por la prisa, y las cosas que se ponen en funcionamiento, entre ellas la temperatura del agua, no es adecuado a lo que se requiere porque parece que el caudal es insuficiente. No sé cuanto dinero puede suponer volver a levantar eso, cambiar la canalización para que el caudal sea suficiente y el agua tenga la temperatura apropiada. No se hace un buen seguimiento de las obras. Así mismo nos pareció o nos preocupó la apertura de esa zona sin una seguridad para el usuario de esa zona del polideportivo. Nosotros al Alcalde le pedimos que sea un poco más riguroso en estas cosas de lo público.”

Alkate jaunak (EAJ): “Agradezco tu intervención. Primero se abre a los usuarios, que llevaban bastante tiempo en condiciones precarias, sobre todo en la zona del sótano. A esos usuarios se les ha ofrecido unas instalaciones que creo, están apreciando. Respecto a la puesta en punto no tengáis ninguna preocupación. Se está haciendo lo posible para que todo esté regulado. El dato positivo es que en estos 15 días, se han hecho más de diez abonos. Eso quiere decir que los usuarios lo están utilizando, la sala de fitness está a tope y

además la apreciación general es muy buena, aunque el ruido mediático quizás no lo es.”

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamarrek hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.